



Maria Kruz Agirre da Leaburuko alkate berria

BATZARRA ▶ Maiatzetik alkaterik gabe egon ondoren, atzo hautatu zuten Bide Berriak taldeko kidea

PROTESTA ▶ EAE-ANVren ordezkariak nahiz jarraitzaileak hartutako erabakia salatu zuten ▶ 6



EAE-ANVn hartutako erabakia salatu zuen udalbatzarrean. HITZA



IMANOL GARCIA

Herensugeak piztu du festaren garra

IRURA ▶ Atzo hasi ziren San Miguel jaiak irurarren gozamenerako; aurtengoan, Eladia Altunak izan du txupina jaurtitzearen ardura ▶ 4

LEIZE

Tolosan
zure arropa denda

BERRIA

Korreoa kalea, 19

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

KULTURA ▶

Txanogorritxo ipuin klasikoa antzerkian, gaur, Leidorren

17:00etan hasiko da emanaldia; «ilobei ipuinak kontatzen dizkieten aiton-amonei omenaldi modukoa» da antzezlanaren

ERREDAKZIOA

Antzezlan aski ezagunaz gozatzeko aukera izango dute gaur etxeko txikienek. Izan ere, nork ez ditu ezagutzen Txanogorritxo, eta otxoa, amona eta ehiztariak? Ba, gaurko emanaldian Txanogorritxoaren ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketa izango da ikusgai Glu Glu taldearen eskutik. Saioa 17:00etan hasiko da, eta txartelak leihatilan bertan, Servikutan, Telemekutxan edota Interneten (www.kutxa.net) eskuratu ahaliko dira.

Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak antzezlanean, ohiko istorioan bezala, Txanogorritxoaren amona gaixo dago. Amak aginduta, basoaren beste aldera joan behar du neskatokak janariz betetako saskia amonari eramateko. Baina, haurraren jakin nahiak eta fantasiak eginbeharra alboratuko dute. Marrubi zaporea duten gaztainak edonola aurkitzeko desira izango du Txanogorritxok, esan diotenez basa jakirik karameluena baitira. Haurraren inozentziak jabetuta, otso maltzurra neska-

toaren aurretik iritsiko da amonaren etxera.

Charles Perrault-en lan honen zuzendaria Galder Perez da. Aktoreak, berriz, Libe Aramburu Oñaederra, Ane Zabala Gabikagogeaskoa, Larriz Garcia, Aiora Sedano, Urtza Zuazo eta Ugaitz Alegria dira. «Ilobei ipuinak kontatzen dizkieten aiton-amonei omenaldi moduko bat» dela antzezlanazaltzen dute egileek. Aktore lanak irudi eta musikarekin batera «Txanogorritxoaren ipuin klasikoa antzezlan goxo eta argi» bihurtzen dute.



Antzezlanaren kartela.

DATUAK ▶

Antzezlanaren izena. *Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak.*

Taldea. Glu Glu produkzioak.

Eguna. Gaur.

Ordua. 17:00

Lekua. Leidor aretoa.

Prezioa. 5 euro.

ERLIJIOA ▶

Katekesian ikasturte berrian izen-ematea

Santa Maria Parrokiako aretoa datorren asteartean, 18:00etatik 19:00etara, izango da aukera ikasturte berrian katekesian parte hartuko duten haurrak matrikulatzeko. Haurrak ezezik, gurasoak ere joatea gomendatu dute. Katekesia urriaren 9an hasiko da, 18:00etan, ohikoa den bezala.

GIZARTEA ▶

Plan Orokorri buruz alegazioak urriaren 1a arte

Urriaren 1ean amaituko da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorri alegazioak egiteko epea. Interesatuek Kultur Etxera jo beharko dute dokumentu ofiziala kontsultatzeko eta alegazioak aurkezteko. Epea, urriaren 1ean, astelehenean amaituko da, 24:00etan. Denera, 76 herritar izan dira prozesua hasi zutenetik, aurrez ordua hartu eta gero, Plan Orokorri buruzko zalantzak argitzen. Kultur Etxean ezezik Plan Orokorri buruzko informazioa Internet bidez lortu daiteke, www.tolosakoudala.net webgunean.

ZINEMA ▶

'Los Simpson' eta 'Ocean's Thirteen' ikusgai

Ocean's Thirteen pelikula ikusteko aukera izango da gaur, bihar eta etzi Leidor aretoan. Gaur, 19:30ean eta 22:30ean emango dute, bihar 19:30ean eta etzi, astelehenean, ikuslearen egunea, 20:30ean. Bestalde, gaztetxoei zuzenduriko pelikula ere izango da asteburu honetan. Hain zuzen ere, *Los Simpson* emango dute, bihar, 17:00etan.

GIZARTEA ▶

Gazte ikastaroetan izen-ematea

Gazte ikastaroak antolatuta dituzte aurten ere Galtzaundik eta Udalak elkarlanean. Izena eman nahi dutenek 943 670388 telefono zenbakira deitu beharko dute.

EUSKARA ▶

Aitzolen 25. urteurrenko bazkaria

Erredakzioa ▶ Aitzol Udal Euskaltegian 25. urteurrena dela eta Kultur Astean murgildurik daude aste honetan. Hala, Jaber Muguruzaren kontzertua eta gero, atzo, *Lapur zuloa* antzezlanaren izenaren ikusgai Leidor aretoan. Kultur Astea behar bezala amaitzeko ekitaldi berezia prestatu dute biharko. Hain zuzen ere, bazkaria izango da bihar Zerkausian, 14:00etatik aurrera. Bazkari hau topaketa moduko bat izatea gustatuko litzaiekeela azaldu zuten euskaltegiko ardura-dunek. Irudian, Aitzolen ikusgai izan den erakusketa. E. EZEIZA



Joxean

- iturgintza
- berokuntza
- aire egokituak
- gasa
- inst. industrialak

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • 656416808

Carpintería ATARI, S.L.
AROSZTEGIA

Arroztegi melandinos. Olival eta berriak. Etxeak eta irakal komertzialak. Etxeak eta irakal komertzialak. Etxeak eta irakal komertzialak.

atari@tolosakel.net

943 670 34 20

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa).
Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Ibarra).
Garajeak Euskal Herria kalean, irekiak.
Salgai (Tolosa).
Garajeak Leidor azpian.
Salgai (Ibarra).
Lokala Euskal Herria kalean.
Salgai (Tolosa).
Garaje Itxia San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garaje irekiak. Araba etorbidean irekia eta Leidor azpian.
Alokatzeko (Tolosa).
Garaje itxiak, San Frantzisko eta lurren.
Alokatzeko (Leaburuko bidean).
Pabilioi industrialak.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

AISIA ▶



200 lagun aritu dira lanean garagardo azokan; argazkian, horietako bi, garagardoa zerbitzatzeko. ESTI EZEIZA

Garagardo azoka, orain arteko «arrakastatsuen»

7.000 saltxitza eta 1.700 ukondo inguru saldu dituzte eta antolatzaileak «oso gustura» daude lortutako emaitzekin

IMANOL GARCIA

«Aurtengoa izan da orain arteko azoka arrakastatsuen». Horrela dio Oscar Gibelalde, Tolosako Garagardo Festaren arduradunetako batek. Bederatzigarren aldia da antolatzen dutena eta aurten izan da jende gehien bertan, beraz, janari eta garagardo gehien edan den urtea ere izan da. Zalantzarik gabe «oso gustura» azaldu dira antolatzaileak.

Guztira 7.000 saltxitza inguru saldu dituzte, hau da, saltzeko zeuzkaten guztiak. Horregatik, iganderako jaki hori gabe gelditu ziren. Ukondoei dagokionez, 1.700 inguru atera zituzten. Garagardo kopurua ez

dute oraindik zehaztu, baina iaz baino gehiago saldu dutela argi dute. Gehien edan den garagardoa Lefte Gorria izan dela diote antolakuntzatik.

Iaz bezala, bost janleku zituzten prestatuta, hau da, 1.500 lagun ingururentzat. «Aurreko urtean ez ziren denak bete, Zerkausiaren terraza, esaterako. Eguraldiak ez zuen lagundu», dio Gibelalde. «Baina aurten goan eguraldi ona egin du eta bost janlekuak bete egin dira».

Hori horrela, jende kopuru gehiago hartu nahi badute, antolakuntza aldatu egin beharko dutela diote. «Orain dugun azpiegiturarekin ezingo genuke ukondo gehiago zerbitzatu. Beste modu batera egin behar-

ko genuke», zehaztu du Gibelalde.

Berrikuntzarik ere izan da. Izan ere, Tolosako bi elkarteren artean batel apustua egin zuten eta ekitaldi hori aprobetxatuz azokako barra ireki zuten. Pintxoak, ardoak eta garagardoa eman zituzten euro batera. «Oso ondo joan zen», dio Gibelalde. «Datorren urterako buruan dugun ideia bat da igandeko eguerdian azoka zabaltzea».

200 lagun inguru egon dira lanean. Lau kirol taldeko kideak aritu dira: Igeriketa Kirol Taldea, Tolosa CF Txirrindulari Taldea, Hegoalde eta Judo elkarteak. Talde guztiak Udalaren laguntza izan dute.

KIROLAK ▶

Ikastaro ugari egiteko aukera Usabalen

Helduei eta haurrei zuzendutako ekintzak antolatu dituzte denboraldi berrirako

ERREDAKZIOA

Usabal kiroldegian ikastaro ugari egiteko aukera izango da denboraldi honetan zehar. Helduei eta haurrei zuzendutako kirol ekintzak eskaintzen dituzte.

Helduek aerobika, mantenu gimnastika (fisikoki sasoiaren egoteko ariketa ezberdinak), prestaketa fisiko intentsiboa, kirol entrenamendua, yoga (gorputza eta arima lantzeko ariketa lasaia), hirugarren adineko gimnastika, cycling (bizikletan, norberak bere intentsitatean eta musikarekin erritmoan egiten den ariketa),

helduen igeriketa (mailaka igeri trebeziaren lantzea); pilates (arnasketa eta lasaiketa aktiboaren bitartez egokitzapen fisikoa lortzeko lana), akuayma (uretan egiten diren inpakturik gabeko ariketa ezberdinak), GAP (ipurdi, abdominal eta hanken tonifikazio espezifikoa), tai chi chuan, kempo (defentsa pertsonala), karate eta areto dantza.

Haurrentzako ikastaroei dagokionez, kirol ludoteka (7-11 urte bitartekoentzat; cycling egingo dute), psikomotrizitatea (4-6 urte bitartekoentzat), haur igeriketa eta haurtxoen igeriketa (sei hiletik aurrera).

KULTURA ▶

Ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Kultur Etxeko ekintzetan parte hartu nahi dutenek hilaren 28ra arte dute epea

ERREDAKZIOA

Kultur Etxean ematen dituzten tailerretan izena emateko epea zabalik dago. Hainbat aukera daude egiteko, batez ere helduei zuzenduta.

Antzerkia (147 euro) eta argazkintza (198 euro) dira, esaterako, bi aukera dira. Baletari dagokionez, alde batetik 4 eta 13 urte bitartekoentzako ikastaroak daude, adin tarte bakoitzarentzat egokituak (bakoitzak 121 euro), baleta aurreratua (165 euro) eta puntak 1, 2 eta 3 (44 euro). Egin daituzkeen beste ikastaroak

hauek dira: dantza garaikidea, egurra lantzea, ehoziri lana eta patchworka, eskulanak, pintura eta marrazketa eta zeramika (ikastaro bakoitzak 165 euro). Horiek guztiak helduentzat dira. Haurrentzako beste ikastaroa pintura eta eskulanak dira (121 euro). Bi talde egingo dituzte, 6-10 urte bitartekoak eta 10-14 urte bitartekoak.

Izena emateko epea hilaren 28an amaitzen da eta Kultur Etxean bertan egin ahalko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 670383 zerbaki- ra deitu daiteke.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

urteurrena ▶

I. urteurrena

Andres Salegi Sarasola

2006ko irailaren 23an hil zen.
—Goian bego—



Haren animaren alde meza ospatuko da BIHAR, IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, Itsasondoko ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan. Familiaren partetik, eskerrak.

ITSASONDO, 2007ko irailaren 22a

IRURA ▶ GIZARTEA



Herensugeak piztu ditu herriko jaiak

Erredakzioa ▶ Herensugearen etorrerarekin ekin diote Irurako San Miguel jaiari. Txupinazoren protagonista Eladia Altuna izan zen. Emozioz eman zion su txupinari herritarrak eskertuz. Jende ugari hurbildu zen plazara jaien hasiera ikustera zapi berdea soinean zutela. Gaur, Haur eta Gazteen Eguna izango da. Asteburu honetan hasi eta hurrengora arte luzatuko da jai giroa. IMANOL GARCIA

VILLABONA ▶ KULTURA

Helduentzako filmak berriz ikusgai, Gurean

Lau urtetan zinema zerbitzu hori eskaini gabe egon ondoren, Udalak honen aldeko apustua egitea erabaki du

ESTI EZEIZA

Lau urte inguru, helduentzako filmik eskaini gabe egon ondoren, berriro zerbitzu hori ematen hasiko da Gurea zinema. Villabonako Udalak zinema emanaldien beharra zegoela ikusi ondoren kultura sailak hau martxan jartzeko dirua ematea erabaki du. Hautsi Izagirre kultur zinegotziak azaldukoaren arabera, «Gurea zinema, Villabonakoa bakarrik ez, Aiztondo bailarako zinema izatea lortu nahi dugu». Horretarako, «zerbitzu atsegina, kalitatekoa, eta

aldi berean, merkea» eskainiko duela ziurtatu dute.

Adin guztietako jendeari zuzendutako programazioa presatatu dute antolatzaileek. Hala ere, garrantzi gehiena haurrenari emango diotela aipatu zuen Izagirrek. Joxi Alonso, Gurea zinemako kudeatzaileak azaldu zuen bezala, «udaletxeak, egitasmo honekin apustu handia egiten du». Bestalde, zerbitzua hobetearren zenbait berrikuntza egin direla azaldu zuen. Horien artean, soinu kalitate hobetzeko, bozgorailu berriak ipini dituzte. Bestetik,

LEHENDABIZIKO FILMA ▶

Izenburua. 'Peeper'.
Eguna. Irailak 30.
Ordua. 17:00.
Hizkuntza. Euskara.
Prezioa. 3 euro.
Nori zuzendua. Haurrei.
Tokia. Gurea zinema.

Areto SL enpresarekin hitzarmena sinatu dute, estreinatu diren pelikula berriak, ahalik eta azkarren ekartzeko Villabonara. Hala, hiru edo lau aste-



Hautsi Izagirre eta Joxi Alonso, atzoko aurkezpenan. E. EZEIZA

ren buruan Gurean ikusi ahal izango dira. Bestalde, Alonsok gaineratu zuenez, Udalak egindako apustu honen ondoren, «orain, jendeak erantzun behar du, hain zuzen ere, beraiek baitira zinea ona izatea egiten dutenak; beraz, zenbat eta eskari handiagoa izan, orduan eta azkarrago ekarri ahal izango ditugu pelikulak Gurea aretoran».

Zine emanaldiak asteburuetan izango dira: larunbat, igande eta astelehenean, helduei zuzendutakoak; gainera, azken egun hau ikuslearena izango delarik. Haurrentzako saioei dagokionez, larunbat eta igandean izango dira. Azken em-

naldi hauetan, erdiak euskaraz izango dira.

Zinema emanaldiez gain, hilabetean behin antzerki saioak ekartzeko asmoa dutela adierazi zuten atzoko aurkezpenan antolatzaileek.

Kultur programazioa

Hilabetean behin, Villabonan eta Amasan izango diren kultur ekitaldien inguruko eskuorria argitaratuko du Udalak. Bertan aipatuko dira, zeintzuk diren Gurean eskainiko diren pelikulak. Horrez gain, erakusketak, antzerki eta abarren berri emango dute.



eskualdeko aukera hoberenak!


Idra Nordikoak

Ibaiondo 15 • Irura
943 69 16 77
contacto@idranordicos.net

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA



Ikatz-marrazkia. 1916. urteko Zizurkilgo ikuspegia irudikatu du Juani Alkortak. Egutegi batean ikusi zuen irudia eta hura arkatzarekin egin zuen, zuri-beltzean, alegia. J. ALKORTA



Oleoz egindakoak. Paisaia lasaia dira nagusi Alegiko erakusketan; asko oleo teknikarekin daude eginda. J. ALKORTA



Upategi. Hainbat upategi ikus daitezke: batzuk jakiekin eta beste batzuk pitxarrekin. J. ALKORTA



Erliebean. Pasta berezi batekin egin ditu hainbat margolan. Lana ematen du teknika honek, baina artistaren arabera ez da zaila berarentzat. Geruza asko behar ditu, eta lehortzen utzi behar zaio. Hala, margolana hiru dimentsiotan gelditzen da. J. A.

Upategiak eta paisaiak erliebean

Juani Alkorta zizurkildarrak Alegiko jubilatuen tabernan jarri ditu bere lan batzuk ikusgai, hilaren 30era arte

NEREA URBIZU

Zizurkildar baten erakusketa dago Alegiko jubilatuen tabernan, Juani Alkortarena, alegia. Ez da bere lanak ikusgai jartzzen dituen lehen aldia, baina guztiz ezberdinak dira oraingoak: deigarrienak erliebean egindakoak dira. Hilaren azken egunera arte izango dira bertan, ikusgai eta salgai.

Aurreko erakusketan akuarelakoak ziren nagusi, baina honakoan pasta berezi batekin egindakoak daude, ikatz-ziria-

rekin ere bai, eta oleoz batez ere. Gaiei dagokionez, paisaiak dira gehienak, baina upategiak ere badaude. Besteen artean, Alegia ere irudikatu du.

Paisaiak dira gehienak, eta «zuzenean bertara joan beharrean, argazkia atera eta argazkiari begira margotzen ditut koadroak», dio Juani Alkortak. Zailena zer den galdetzean akuarela eta erliebean egindakoak dira: «Erliebean egindakoak zailak baino, lana ematen dute, baina gustatzen zait hau egitea».

«Edozeinek egin dezake»

Zizurkilken ikasten du, Olivia Sanchezekin: «Bi ordu egiten ditugu bertan, eta gero etxean ere egin behar da». Aurreko erakusketa jarri zuenean, Juani Alkortak, besteak beste, «margotzeak lasaitasuna ematen duela» adierazi zuen. Gaur egun ere, berdin pentsatzen du: «Margotzeak lasaitu egiten nau. Askok uste dute ez direla gai margolan bat egiteko, baina kontua hastea da: pixkanaka gauzak ateratzen doaz eta nire

ustez, probatu egin behar da». Horrez gain, «baten bat ez da ondo moldatuko oleoarekin agian, baina hori bakoitzak probatu egin behar du».

Datorren erakusketa ez daki noiz izango duen, baina ziurrenik Legorretako jubilatuen elkartean izango da.

Pasta bereziarekin egindakoek «dana ematen dute, pasta eman behar zaio lehenengo,

gero margotu egin behar da, eta geruzak lehortzen utzi ere bai». Dena dela, «akuarela da zailena, eta horretan nabil, ikasi nahian».

Ikatz-marrazkiak ere badira; Zizurkilgo 1916. urteko ikuspegi bat irudikatu du Alkortak arkatzarekin. «Garai hartako argazkia ikusi nuen eta gustatu egin zitzaidan, eta horregatik egin nuen».

Handwritten text: Añakor Ezelebar

Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kirolegia
Tolosa Tel.: 943 577573
www.bidebide.es

bidebide
restaurantebarr

LEABURU-TXARAMA ▶ POLITIKA

Bide Berriak-eko Maria Kruz Agirre aukeratu dute alkate

EAE-ANV «gertatutakoa herritarrei azaltzeko» herri batzarra egingo du Txaraman, hilaren 25ean, 19:00etan



Maria Kruz Agirre, Joxe Martin Deusto eta Asier Etxezarreta. HITZA



EAEk elkarretaratzea egin zuen udalbate kanpoan. HITZA



«Izema emateko epea; irailaren 30a

Euskal Kantuzaleen Elkarte

943-593392 / postag@kantuzale.net

ASIER IMAZ

Leaburu-Txaramako alkatea atzo aukeratu zuten udalbatzarrean. Udala osatzen duten Bide Berriak Hautesle Elkarte-ko hiru zinegotzik, Maria Kruz Agirre aukeratu zuten alkate posturako. Herriko EAE-ANV-ren jarraitzaileek protesta egin zuten erabaki honen aurrean.

Maiatzaren 27az geroztik, Leaburu-Txarama alkaterik gabe aurkitzen zen. Hauteskundeetan EAE-ANV eta Abertzale Sozialistak legez kanpo utzi zituzten Espainiako Alderdien Legea aplikatu zitzaielako. Honen ondorioz, Bide Berriak Hautesle Elkarteak lortu zituen zinegotzi guztiak, 7 hain zuten ere. Hala eta guztiz ere, EAE-ANV legez kanpo utzi izan ez balute, Bide Berriak 3 zinegotzi izango lituzke eta EAEk 4.

Hirugarren Udalbatzarra

Atzokoa, hirugarren udalbatzarra izan zen. Gai zerrendan, puntu bat bakarrik aurkitzen zen, alkate aukeraketari zegokiona. EAEko ordezkariak Joxe Martin Deustori (BB) bigarren udalbatzarrean alkatetzari uko egin ziotela gogoratu zuten, Bide Berriak kideak esana errepikatuz: «herrian pakean eta gizatasunean oinarritutako bizikidetzan sinisten dugulako, uko egiten diot alkate izendatzeari». Joxe Martin Deusto, idatzi hori ekainaren 18an burutu zen udalbatzarreko egin zutela erantzun zuen. Azkenik, EAEren jarraitzaileen protestekin ere, Bide Berriak Hautesle Elkarte-ko kideek, Maria Kruz Agirre hautatu zuten alkate.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Gitarra. Bigarren eskuko gitarra elektrikoa eta anplifikagailua.
Deitu 664 14 88 89 zenbakira.

LANA

Tabernaria. Amasako Iturri-Goxo jatexean tabernari bat behar dugu arratsaldeetarako.
943 69 12 10.

IBARRA ▶

EAE-ANV udal bilkurara joateko eskatu du

Ibarrako EAE-ANV jakinaz duenez, hilaren 25ean, asteartea, 18:00etan udal bilkura egingo da. EAEtik herritar guztiei udalbatzera joateko eskatu die; «bertan ibartarron borondateari bizkar emanaz, sortu duten Udala salatzeko eta guri dagozkigun zinegotziak exijitzeko. Hori lortzea ibartarron esku» dagoela esan dute.

IKAZTEGIETA ▶

Aerobic eta gimnastika ikastaroak

Aerobic ikastaroa eta mantentimendu gimnastika ikastaroa urriaren 2an hasiko dira. Bertan parte hartu nahi dutenek udalbatzera eman behar dute izena hilaren 27a baino lehen. Nahi duenak telefonoz ere izena eman dezake, 943 653329ra deituta.

LIZARTZA ▶

Manifestazioaren aurka Mariano Rajoy (PP)

Mariano Rajoy, PPko presidentek bere babesa eman dio Regina Otaola, Lizartzako alkateari, Espainiar bandera jartzeagatik. Larunbatean 19:30ean egingo den manifestazioaz, «deialdia egin dutenak erokeria egoeran bizi direla» aipatu du. Tolosaldeko ezker abertzaletik manifestazioan parte hartzeko deialdia zabaldu dute.

IBARRA ▶

Guraso eskolak ikasurte berria hasiko du

Ibarrako Udala Gizarte Ongizate Batzordekoak Uzturpe Ikastolako zuzendaritzarekin batera, guraso eskolak jarriko dituzte martxan ikasurte berri honetan. Izena emateko epea urriaren 5ean amaitzen da eta 25 euro ordaindu behar dira udalbatzera.

GIZARTEA ▶



Mugikortasun Iraunkorraren Astea amaierara bizikletaz

A. Imaz ▶ Mugikortasun Iraunkorraren Astea amaitzear dagoen honetan, eskualdeko hainbat herritan ekitaldiak antolatzen jarraitzen dute. Atzo Ibarra eta Zizurkilen, bizikleta izan zen protagonista. Uzturpe Ikastolako haurrak Ibarra zeharkatu zuten bizikletaz, Zizurkilen berriz, txekoak egin zituzten bizikletei. Gaur bigarren eskuko material azoka burutuko dute Villabonan 10:00etatik aurrera. Tolosan, berriz, ibilgailuen okupazioari buruzko neurketa. A. IMAZ

KULTURA ▶



Erakusketa argazkian agertzen diren bezalako paneletan oinarritzen den arren, ikus-entzunezko materiala ere badago. N. GARZIA

Manuel Lasarte bertsolariari buruzko erakusketa jarri dute Iruñeko Tafalla Jauregian

‘Bertsotan blai’ izeneko erakusketaren bigarren zatian, 42 urtez plazaz plaza ibili zen bertsolari leitzarraren inguruko hainbat kontu ikus eta entzun daitezke

NAIARA GARZIA

Leitzako *Franki* baserrian jaiotzen Manuel Lasarte bertsolariaren omenez erakusketa bat jarri dute Iruñeko Tafalla Jauregian.

Euskara Kultur Elkargoak (EKE) antolatutako erakusketa (*Bertsotan blai*) herenegun ireki zuten eta bi zati ezberdin ditu. *Hitzak egin gaitu ezer. Mundua bete bertso* izenekoak bertsolariarekin lotuta dauden hainbat gai jorratzen ditu, besteak beste, bertsolariaren transmisioa, bertsolariaren teknologiaren arteko harremana... Bigarren zatian dagoenez, Manuel Lasarte bertsolariaren bizitza aztertzea du helburu, gizon bezala eta bertsolari bezala. Erakusketan, duela urtebete Leitzan bezalaxe, Lasarte errementaria eta bertsolaria topatuko dute bertaratzen direnek.

Erakusketa paneletan oinarritzen da, nahiz eta ikus-entzunezko materiala ere bada. Gainera, Manuel Lasarte



Iruñeko Tafalla Jauregian jarri dute erakusketa, kale Nagusian . n.g.

tek berak idatzitako liburuak ikus daitezke, edo berari buruz idatzi dituztenak.

Erakusketa urriaren 31 arte egonen da ikusgai, astelehentik larunbatera goizez eta arratsalde, eta igandetan, goizez.

Leitzatik Oriora

Manuel Lasarte 1927ko abenduaren 16an jaiotzen Leitzako *Franki* baserrian. 12 urte eskas zituela maizterrak zirenez

baserria uztea egokitu zitzaion, eta Leitzatik Aiara joan zen familia osoa. Handik urte batzuetara, Oriora bizitzera joan zen (1954. urtean), jada ezkontuta zegoela eta ordutik han bizi da. Orion hiru seme-alaba izan zituen, eta lehenengoa 1958an hil zitzaion, hamazazpi hilabete zituela. Horrexegatik bigarren alabari (aitona egin zuenari) izen bera jarri zioten: Maria Pilar.

Lan asko egin da Lasarte. Txikitik baserriko lanak egiteaz gain, 13 urterekin ganadu ferratzen hasi zen, eta hainbat lekutan ibili zen ferratzaile bezala: Aian, Zumarragan, Eibarren, Amezketan, Zarautzen, eta Oikinan. Zarautzen ferratzen zebilela, errementari lanean hasi zen eta urte asko eman ditu Orion errementaritzan. Bere seme Eusebiok aitaren lanarekin jarraitu du.

Bertsolari handia

«Nire iturritik sortzen zen ura erabili dut bertsolarako» esan zuen Lasarte bertsolariak, izan ere, berezkoa baitu hitzen etorria. Bertsolariaren adituak direnentzat, eta erakusketako liburuxkak dioten bezala, «Manuel *Uztapide* eta Manuel Lasarteren bat etortzea bertsolariaren izan den gertaerarik ederrenetako bat izan da». Bi bertsolariak 27 urte egin zituzten elkarrekin abesten, plazaz plaza, eta urtean 100 saio inguru egiten zituzten. Hitz hauexek esan zituen Lasartek Manuel Olaizola *Uztapideri* buruz: «Neri *Uztapide* zana ezin zait ahaztu. Ametsetan ere harekin ibiltzen naiz ohean bueltaka sarritan. Maite det gaur oraindik, bizi zanean bezelaxe. Neretzat ez da behin ere hilko. Oso ona zen. Izugarri gizona. Bertsolari ederra».

Manuel Lasartek 17 urterekin hasi eta 42 urte egin zituen plazaz plaza, eta urte guzti hauetan bere hitzaren bitartez hainbat gai jorratu zituen: gurasoak, hildako alaba, bere lanbidea, herri-kirolariak, baserriarrak, arrantzalea, Jaungoikoa, bizitzaren samina...

BIRIGARRO ETA USOTARAKO POSTUEN ENKANTEA ARESON (Nafarroa)

Donostiatik 25 minututara, kotxez postuetaraino joateko aukera.

Postuak eginda eta inguruak garbituta.

1. enkantea

Irailak 22 • 19:00etan

2. enkantea

Irailak 29 • 19:00etan

948 510327 • 665 63 96 74



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Herriko jaietan gazte festarako izen-emateak: tabernan laguntzeko eta bazkari edo afarirako, trinketean. Bazkaria Aizpurua jatebixean izango da (8 euro goizetik atera direnentzat edo 15 euro).
Tolosa. Txanogorriko haurrentzako antzezlana eskainiko dute Leidor aretoan 17:00etatik aurrera.
Tolosa. Hilaren 17tik 28ra izango da kultur tailerretako matrikulazio epea, 17tik 21era iazko ikasleek izango dite izena emateko aukera, eta 24tik 28ra ikasle berriek.
Tolosa. La Jara Zentroak bidaia antolatu du Extremadurara azaroaren 1etik 4era, Montanchez, Merida, Olivenza eta Almendralejo bisitatuz. Izen-ematea, 230 eurotan, elkartean (675 70 76 19)
Villabona. Tolosaldeko Naziotasun Eguna: 10:00etan, zappi suziriak; 10:00etatik 13:00etara EHNA tramitatzeko aukera; 11:00etan errebotea eta kalejira; 13:00etan ekitaldi politikoak; ondoren, herri bazkaria; 18:30ean, triki bertso poteoa.

ZINEMA

Tolosa. *Ocean's Thirteen* filma Leidorren, 19:30ean eta 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
 Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Paperean azkenak

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Amaitu da HITZA Argazki Lehiaketaren seigarren edizioa; oso arrakastatsua izan da



TUNISIA ▶

Nerea Lopetegi (Tolosa).

«Uda honetan egun batzuk pasa ditugu Tunisian. Hango basamortuan atera nuen argazki hau».



VIGNEMALE (PIRINIOAK) ▶

Txema Zabala Maiz (Tolosa).

«Pirinioetan izan gara: Vignemale mendira eta bere glazierara igo ginen. Ez dira ikusten hemendik hain gertu honelako glaziar politak».



GETARIA ▶

Juanjo Esnaola (Anoeta).

«Getariako xaguan miradore bat dago eta horko leiho batetik ateratako argazkia iluntzen ari dela».



HIGUEI (PUNTA CANA) ▶

Ramon Iglesias (Ibarra).

«Argazki hau Punta Canako herri batean ateratakoa da, Higuei-en hain zuzen ere, eta bertan ume pila bat ikusten ziren gozoki edo diru eske, hanka hutsik eta arropa gutxirekin, ona hemen bertako ume bat eta nire alabaren eskua, mermelada eta xaboi batzuk ematen. Bihotza hunkitzen zaizu haur bat horrela ikustean».

<p>hitza</p> <p>Gainera, Donostiako ZINEMALDIRA doan joateko aukera ere baduzue, izan ere HITZAK 27 sarrera pare ditu zuen artean banatzeko.</p> <p>Parte hartzeko, deitu 09:00etatik 13:00etara telefono zenbaki honetara: 943 65 56 95</p>	<p>Ibarrako Alurr dantza taldeak bere historia biltzen duen liburua argitaratu berri du. Liburu honen 4 ale zozketatu ditugu gure harpidedunen artean eta hauek dira irabazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ Axun Bengoetxea (Ibarra) ▶ Aritz Larreta (Amezketeta) ▶ Izaskun Dorronsoro (Berastegi) ▶ Karmen Iraeta (Tolosa) 	<p>Liburuak Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren bulegoan izango dituzue. ZORIONAK!!</p>
--	---	--